

TRANS BANDERAK



1999. Monica Helms. *Hiru koloretako trans bandera.*

Monica Helms AEBtako militar ohiak diseinatutakoa da. Hurrengo urtean, Phoenixeko harrotasunaren manifestazioetan aurkeztu zen.


Michael Page bisexualen banderaren sortzailearekin hitz egin eta gero honek "bandera simple" bat sortzea gomendatu zion.

Goiko eta beheko marren urdin eta larrosa koloreak, tradizioz mutil eta neskei egotzitakoak dira. Zuria berriz, trantsizio prozesuan daudenei edo genero neutroa zein definitu gabeko generokoak direnei erreferentzia egiten die.

Larrosa = neska eta urdina = mutila, beti izan al da honela?

Jo B. Paoletti bere "Pink and Blue: telling the boys from the girls in America" (2012) liburuan adierazten duenez, AEBtan 1920ko hamarkadara arte haurrentzako arropen kolorea zuria zen.

Garai hartan kolore larrosa mutilekin eta urdina neskekin lotzen hasi zen. Gaur egun mendebaldeko jendarteetan indarrean dauden koloreen kodea ez da 40ko hamarkadara arte erabiltzen hasiko.



1999. Jonathan Andrew. *7 bandetako trans bandera.*

AEBtako Jonathan Andrew-k bere "Adventures in Boyland" web orrialdean aurkeztu zuen, 2004. Urterarte martxan izan zuelarik. Pertsona trans guztiak ordezkatzeko nahiarekin sortu zuen.

Marrak mutil eta neskei tradizioz egotzitako kolorerakoak dira eta tarteka genero identitate guztiak barne hartzeko.

Artizar eta Marteren sinbolo astronomikoak gizon eta andrazkoekin erlazionatu izan dira historian zehar. Hemen loturik agertzen dira trans errealitatea desberdin guztiak adierazteko.



2010. Michelle Lindsay. *Hiru sinboloko trans bandera.*

Michelle Lindsay diseinatzaile grafiko kanadiarrak aurkeztu zuen Ottawan (Kanada), trans memoriaren nazioarteko egunean. Magenta eta urdinaren nahasketaz gain, Artizar eta Marteren sinbolo astronomikoak lotuta agertzen dira. Sortutako hirugarren sinbolo horrek trans pertsonak ordezkatzeko ditu.



2002. Jennifer Pellinen *5 koloretako trans bandera.*

AEBtako Jennifer Pellinen aktibistak aurkeztu zuen "The Transgender Flag Project" bere web orrialdean.

Neska eta mutilei tradizioz egotzitako larrosa eta urdin koloreen artean, beste koloretako trantsizio multzo batez osatzea zen hasierako ideia.

LGTBI+ banderetatik desberdintzeko sortu zuen, pertsona trans batek ez duelako zertan bere burua kolektiboko orientzioa sexual batekin identifikatu behar.



2015. Raquel Willis. *Trans bandera beltza.*

Raquel Willis AEBtako aktibista eta idazleak sortu zuen. Pertsona beltzen eta bereziki, pertsona transen erailketa testuinguru latzan, hain zuzen ere. Bere hausnarketa honakoa zen, 1999. urteko banderak pertsona guztiak ordezkatzeko bazuen kolore zuridun marra erabilia, zergatik ez luke modu berean marra beltz batek ordezkatzeko?